

206. zenbakia

# Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

2023<sub>ko</sub>  
aurrekontuak



# Telefono interesgarriak

|                                |              |
|--------------------------------|--------------|
| Zentralita                     | 943 15 72 00 |
| Hirigintza                     | 943 15 71 91 |
| Gizarte Zerbitzuak             | 943 15 71 92 |
| Kultura                        | 943 15 70 68 |
| Kirolak                        | 943 15 00 95 |
| Parekidetasuna                 | 943 15 79 28 |
| Emakumeen Txokoa               | 943 15 70 55 |
| Iturritxiki Ludoteka           | 943 15 11 79 |
| Txiki-Txoko Ludoteka           | 943 15 05 16 |
| Gazte Informazio Bulegoa (GIB) | 943 15 71 60 |
| Eguneko Zentroa                | 943 15 74 96 |
| Liburutegia                    | 943 15 71 95 |
| Udaltzainak                    | 943 15 13 13 |
| Igerilekua                     | 943 81 41 21 |
| Kiroldegia                     | 943 81 30 69 |
| Udal Euskaltegia               | 943 81 19 47 |



## Ale honetan zer?

|                                                     |    |
|-----------------------------------------------------|----|
| Ekarpenekin osatu dira aurrekontuak .....           | 3  |
| Tasa eta zergak.....                                | 6  |
| Ongizatea, ekonomia eta trantsizio energetikoa..... | 8  |
| Elkarrizketa .....                                  | 11 |
| Irisgarritasuna hobetzeko proiektuak .....          | 14 |

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu  
**Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria  
**943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa  
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland  
Maketazioa: Sorland  
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

## Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



## Eragile eta norbanakoen ekarpenekin osatu dira aurrekontuak

Urria eta azaroan herritarren ekarpenak jaso ditu udalak; urrian landa-eremuko hainbat auzotako bilerak egin ziren, eragileekin ere landu ditu aurrekontuak eta azaroan herritar norbanakoek izan dute aukera.

## Ekarpenekin osatu dira aurrekontuak



Azpeitiko Udalak urteak daramatza aurrekontuak herritarren ekarpenekin osatzen. Eta 2023ko aurrekontuak osatzerakoan ere ekarpenak, iritzia edo ideiak jasotzeko hainbat bide jarri ditu. Izan ere, Azpeitia hobeago bat eraikitzeko garrantzitsua da herritarrak entzutea.

Horretarako, udal barruan arloz arloko batzordeetan, teknikariekin eta posizioarekin lantzearekin bat, landa-eremuko hainbat auzotan bilerak egin ziren urrian. Zehazki, Lasao, Urrestilla, Aratz-erreka, Nuarbe eta Elosiaga auzoan elkartu zen udala bizilagunekin, auzo horietako beharrak eta ideiak ezagutzeko.

**Azpeitia hobeago  
bat eraikitzeko  
garrantzitsua da  
herritarrak entzutea**



Herritar norbanakoek beren ekarpenak egiteko ere jarri dira bideak. Hala, norbanakoek online zein herrian jarritako postontzien bidez izan dute iritziak helarazteko aukera.

Denak jaso eta aztertu ditu udalak, eta datorren urteko plangintzak sartu egiteko modua ikusi dituztenak. Azterketa edo lanketa handiago eskatzen duten eskaerak ere landuko ditu datorren urtean.



# Tasa eta zerga gehienak bere horretan, eta berriztagarriak ezartzeko hobariak indartuta

2023ko Ordenantza Fiskalak, aho batez, onartu zituen udalak urriko udalbatzan. Tasa eta zerga gehienak bere horretan mantenduko dira datorren urtean ere.

Azpeitiko Udalak 2023. Urteko Ordenantza Fiskalak onartuta ditu urritik. Udalaren egoera ekonomikoa eta urteko datu ekonomikoak aztertu ostean azken urteko bilakaera ikusi eta dagozkion aurreikuspenak egin ondoren, irailaren 26ko ogasun batzordean

landu zuen Udal Gobernuak bere proposamena urriko plenora eman aurretik.

Orohar, 2023. urtean tasa eta zergetan ez da aldaketarik izango. Ordenantza fiskalak zehazterakoan egoera ekonomikoren bilakaera aztertu du udalak ahalik eta aurreikuspenik egokienak eta zehatzenak egiteko. Bi printzipio nagusiren baitan osatu dira ordenantza fiskalak: zuhurtzia eta zergen progresibitatea. Egungo hainbat krisi tarteko, izugarria da inflazioa eta prezioen igoera. Horrek eragin zuzena du



herritarrengan eta, baita, udalean ere. Herritar oro kolpatzen du egoerak, baina ez denak berdin. Ondorioz, zerga aplikazio progresiboa beharrezkoa da, karga fiskalek ezberdin eragiten dielako herritarrei. Udalaren ardura da karga fiskal horiek ahalik orekatu eta berdineria izatea.

Orohar tasa eta zerga guztiak bere horretan mantenduko badira ere, salbuespen bat izango da: zabor bilketa tasa prezioa eguneratu egingo da %1,5 igota, batezbeste urtean bi euroko igoera izango du, zehazki.

### **HOBARI GEHIAGO ENERGIA BERRIZTAGARRIAK EZARTZEKO**

Tasa eta zergak mantentzeaz gain, orain artean abian zeuden hobari guztiak ere mantendu egingo dira. Gainera, energia berriztagarrien kasuan, iaztik abian den Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren

baitan, eguzkitik datorren energia aprobetxatzeko sistema termikoak edo elektrikoak jartzen dituzten etxebizitza erabilerako eraikinetan aplikatzen den %50eko hobariaz gain, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobari berria ere izango da 2023an.

Beste hobariei dagokionez, ibilgailu elektriko eta hibridoentzako hobaria du Udalak. Hala, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergan ibilgailu elektrikoek %90eko hobaria dute, eta hibridoek %50ekoa. Horretaz gain, 30 urtetik gorako auto historikoek %100eko hobaria dute.

### **FAMILIA UGARIEN KASUAN ERE DIRU SARRERAREN ARABERA, HOBARIA IZAN DEZAKETE.**

Ekonomia jardueren gaineko zergan, enplegua sustatu edo errazteko helburuarekin gaur egun dauden hainbat hobari mantenduko dira. Jarduera berri bat abian jartzen dutenen kasuan %50eko hobaria izango dute zerga honetan, kontratu mugagabeak sortzen duten jarduerak %30ekoa izango dute eta kooperatiba babestuek eta beste hainbat enpresa moldek %50ekoa.

Kirol instalazioetako tarifei dagokionez, familia ugariak, familia abonuetan diru sarreraren arabera hobaria jasotzeko aukera dute. Erretiratuak, pentsiodunek, langabeek eta lanbide arteko oinarritzko soldata baino errenta baxuagoa duten herritarren hobariak ere bere horretan mantenduko dira.

### **Orohar, 2023. urtean tasa eta zergetan ez da aldaketarik izango**

# Azpeitiarren ongizatea, ekonomia eta trantsizio energetikoa ardatz, 2023ko aurrekontuetan

2023. urteko aurrekontuak onartuak ditu Azpeitiko Udalak. 22.847,155,75€ko aurrekontua izango du Udalak; 2022koa baino %5 handiagoa. EHBilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin onartu ziren abenduaren 13an agintaldiko azken aurrekontuak.



Agintaldiko azken aurrekontuak onartu ditu Azpeitiko Udalak. 2023ko urtarrilaren 1ean, beraz, indarrean izango da aurrekontu berria. Agintaldi berezia izaten ari da, lehenik pandemiak eragin zuzena izan zuen udalaren zein herritarren zeregin eta ekonomian. Oraingoan, berriz, bestelako gertaerek, Ukrainiako gerrak eta prezioen inflazio neurrigabeak, baldintzatu dituzte aurrekontuak.

Testuinguru aldakor horri aurre egiteko, herritarren beharrei erantzuteko, sustapen ekonomikoa indartzeko eta trantsizio energetikoaren bidean jarraitzeko politikak bultzatzeko aurrekontuak onartu ditu udalak. Udala sendo dago Azpeitiaren eta azpeitiarren beharrei erantzun ahal izateko. Hala ere, zuhurtziaz osatu dira aurrekontuak.

Aurrekontuak osatzerako garaian, alde batetik, 2019-2023 agintaldiko programan sakontzea eta betetzea izan da helburua. Eta, bestetik, Azpeitia 2030 Plan Estrategikoa izan da oinarria.

## **PERTSONAK ERDIGUNEAN ETA ONGIZATEA HELBURU**

Gizarte politikak indartzeko apustua egin du udalak 2023. urterako. Horren isla da, Gizarte Zerbitzuen Sailaren aurrekontua %15 handitzea. Azken urteetan programa eta laguntza ezberdinen bitartez hazten eta indartzen doan arloa da, herritarren beharrek horrela eskatzen dutelako. Bizi dugun prezioen igoera neurrigabe honek herritar guztiei eragiten die; baina ez denei berdin. Herritar zaugarrienak babesteko eta desberdintasun sozialei aurre egiteko gizarte larrialdiko laguntzak

eta udalaguntzak %10 igoko dira datozen urterako, besteak beste.

Bilakaera demografikoak, biztanleriaren zahartzea eta adinekoen bizi kalitatean eragina izango duten proiektu berritzaileen lanketan ere ari da udala. Bide horretan, pentsio baxuak dituztenei laguntza ekonomikoak mantenduko dira, mendekotasun egoeran aurkitzen direnei etxez etxeko laguntza egunez eta gauez eta etxez etxeko laguntza integrala handituko dira (717.000€). Bakardade egoerei aurre egiteko neurriak hartuko dira, besteak beste, eguneko unitatea handituz eta etxebizitza tutelatuen eskaintzarekin.

Herritarren ongizate emozionalerako hainbat tailer jarri ditu udalak martxan aurten eta datorren urterako programa berri bat jarriko da martxan, Osakidetzarekin elkarlanean (59.000€).

### **TOKIKO EKONOMIAREN GARAPENA ETA TRANTSIZIO ENERGETIKOA**

Tokiko ekonomia indartzen eta saretzen jarraitzeko Sustapen Ekonomikorako laguntzak mantenduko dira. 2023an, 400.000€ jarriko dira horretarako. Laguntza horiek, urtez urte momentuko beharretara egokitzen joan dira, batez ere, azken urteetan, ezegonkortasunak sortutako behar berriei erantzuteko. Aurrera begira ere, lanketa horretan jarraitzeko konpromisoa du udalak.

Horretaz gain, Iraurgi Berritzen Eskualdeko Garapen Agentziara ere 400.972€ bideratuko dira, besteak beste, ekonomia, enplegua eta turismoaren sustapenerako. Lehen sektoreari dagokionez, azoka plaza indartzen ere jarraituko du udalak, bertako produktuen kontsumoa sustatuz.

Larrialdi klimatikoa mundu mailako arazoa izanagatik, azpeitiarrak hasi gara trantsizio energetikorako pausoak ematen. Datozen urteotan arazo eta erronka izango da guztiontzat, bai erakunde eta norbanakoentzat. Azpeitian oinarri sendoak jartzen ari da; Energia berriztagarrien aldeko apustua irmoa da; Ekindar 2023 urtean

martxan jarriko da eta pixkanaka eraikin publikoetako teilatuetan eguzki plakak jartzen ari da udala. Igerilekuan geotermia sistema eta eguzki plakak jarriak ditu eta, udaletxean ere bai. Epe laburrean, azoka plazan eta Soreasun jarriko dira eta 2023an lanketa horretan jarraituko da. Argiteria publikoan ere 4tik 3 argi LED-ak dira eta falta diren horiek aldatzeko proiektua ere eginga du udalak (760.000€ jarri dira). Jasangarritasunaren bidetik Azpeitia hobetzen jarraitzeko helburua du Udalak.

### **GUZTIONTZAKO AZPIEGITURA ETA INBERTSIOAK**

Herriko azpiegitura eta mantenurako diru gehiago jarri da datorren urterako. KPI igoera dela eta hornidura gastuen hazkundea aurrikusi da eta udaleko zerbitzuetarako ere bai (kale garbiketa eta mantenua, eraikinen garbiketa...). Hala, herritarrei kalitatezko zerbitzuak eskaini eta bermatzea da helburua. Gizarte Zerbitzuen bulego berriak 2023 urtean martxan jartzea ere aurreikusten da. Herriko haur parke guztien mantenu eta konponketak gauzatuko dira datozen hilebeteetan eta datorren urtean hiru haur parke erabat berrituko dira.

Kirol eta kultur azpiegituretan ere hainbat berrikuntza egin dira (Kiroldegiko aldagela eta igogailua, Sormen gunea...) eta datorren urtean ere hobekuntzekin jarraitzea aurreikusten da.

Inbertsioen atalari dagokionez, 2022 urtean aurreikusitako proiektuak kontutan izanda hainbat proiektu garrantzitsu bukatzea eta beste hainbat berri egitea aurreikusten du udalak.

Udalak ematen dituen dirulaguntza guztiak ere mantenduko dira; etxebizitzaren alokairurako laguntzak, etxebizitzaren efizientzia eta irisgarritasuna hobetzeko laguntzak, udal laguntzak, haurrentzako bekak, sorkuntza bekak eta baita kirol, kultura eta eragile sozialei beren urteko jardunerako eta ekintzetarako ematen diren laguntzak ere.

## Ongizatea, ekonomia eta trantsizio energetikoa

|                                  |                       |
|----------------------------------|-----------------------|
| Ogasuna eta kontuak              | 392.098,48€           |
| Hirigintza eta ingurumena        | 2.392.000€            |
| Hezkuntza eta euskara            | 1.232.396,73€         |
| Kultura eta gazteria             | 1.222.100€            |
| Kirola                           | 1.365.138,95€         |
| Gizarte zerbitzuak               | 2.577.500€            |
| Langileria eta antolakuntza      | 6. 592.677,92€        |
| Festak                           | 596.000€              |
| Zerbitzu orokorrak               | 4.651.865,27€         |
| Alkatetza                        | 266.000€              |
| Ekonomia, enplegua eta formazioa | 1.057.878,40€         |
| Parekidetasuna                   | 215.000€              |
| Baserriak                        | 286.500€              |
| <b>Guztira</b>                   | <b>22.847.155,75€</b> |

■ **Udalaren aurrekontu orokorra** 32.564.291,75€

■ **Udalaren aurrekontu propioa** 22.847.155,75€

### Euskara Patronatua:

863.846,73€

### Kirol Patronatua:

1.769.938,95€

### Azpeitia Berritzen:

8.656.636€



## “Azpeitiaren eta azpeitiar guztien beharrak aintzat hartzen dituen aurrekontua izango dugu 2023an”

**Leire Goenaga**  
*Ogasun Batzordeburua*

Ia 23 milioiko aurrekontuak osatzeko ardura izan du Leire Goenaga Ogasun Batzordeburua. Agintaldi berezia izan da azkena, eta azken aurrekontuak ere egoera ezegonkorrean osatzea egokitu zaizkio. Pandemia bukatu dela dirudienean Europako ateetako gerrak zein inflazioak zuzenean eragiten du herritarren bizitzetan; baita erakundearen egunerokoan eta gastuetan ere. Hala ere, okerren pasatzen ari diren herritarren bizi-kalitatea eta Azpeitiko etorkizuneko erronka nagusiak askatzen jarraitzea oinarri hartuta osatu dituzte aurrekontuak.

### **Zein dira aurrekontuen ardatzak?**

Aurrekontuen oinarria Azpeitia 2030 Plan Estrategikoa eta 2019-2023 agintaldiko plana dira. Agintaldi ez ohikoa izan da, baina hala ere, momentuko beharrei erantzun eta etorkizuneko proiektuak lantzen asmatu dugu. Bi begirada horiek mantendu ditugu, herritarren eguneroko erronkak lehenetsi ditugu, baina etorkizuneko proiektuak gauzatzeari edo bultzatzeari ez diogu utzi.

### **Okerren pasatzen ari diren azpeitiarrak dira aurrekontuetako ardatz nagusia.**

Gure politiken oinarria hori da. Okerren pasatzen ari diren horien bizi kalitatean eragitea eta atzean inor ez uztea da gure oinarri nagusia. Horregatik, bereziki agintaldi honetan, apustu ekonomiko sendoa egiten ari gara. Pandemian argi gelditu zen okerren pasatzen ari ziren horien beharrei erantzuteko

geundela, eta horretan jarraitzen dugu. Ekonomikoki juxtu daudenak, menpeko pertsonak, adinekoak, gazteak..... ditugu ardatz.

### **Sustapen Ekonomikoaren baitan, lanean jarraituko duzue, bai udaletik zuzenean, eta baita Iraurgi Berritzen bidez eskualde ikuspegitik.**

Urteak dira tokiko ekonomia sustatzeko sarea osatu eta gure eskumenen baitan lanean ari garela, eta uste dugu horrek eragin zuzena duela. Herriko ekonomiaren sustapenerako laguntzak mantenduko ditugu, uste dugulako enpresen digitalizazioa eta lehiakortasuna, enplegua sortzeko eta langabeziari aurre egiteko tresna egokia direla. Laguntza horiez gain, eskualde ikuspegia lantzeko Iraurgi Berritzen Garapen Agentziaren bidez ere jarraituko dugu lanean, arlo desberdinak lantzen.

### **Trantsizio energetikoan ere eragiten jarraitu behar da.**

Bai, noski. Azpeitiko Udalak urteak daramatza trantsizio energetikoan eragiteko politikak abian jartzen. Hala ere, bizi dugun klima larrialdi egoera honek neurriak hartu beharra azkartu du. Udala erakin publikoetan eguzki plakak jartzen eta efizientzia energetikoa hobetzeko proiektuak egiten ari da lehendik. Horren adibide dira igerilekua eta udaletxea bera. 2022an, Ekindar sortuta ere herri gisa pauso garrantzitsu bat eman dugu eta bide horretan sakontzen jarraituko dugu.

# Irigarritasuna hobetzeko proiektuak



## 1766KO MATXINADA KALEA

Anbulatorio atzeko zubia irigarriago egiteko bigarren fasea egin eta 1766ko Matxinada kalea egokitzeko obrak egitea aurreikusten da. Hala, herritar askorentzat zailtasun berezia duen gun bat irigarria izango da erabat. Obraren lehen fasean ambulatorio aldeko zatia eraberritu eta irigarri egin zen, eta, orain, beste aldearekin gauza bera egitea da helburu.

**Inbertsioa: 227.000€**

## URRESTILLAKO HERRIGUNEA

Urrestilako erdigunea berrurbanizatzeko proiektua egiten ari da udala. Berrurbanizazio horrekin, irigarritasuna eta mugikortasuna hobetzea da helburu nagusia. Lanketa hori auzotarrekin egin nahi da eta udalak proiektua izatean urrestildarrekin bilduko da ekarpenak jaso eta proiektu definitiboa izateko. Ondoren etorriko da obra egitea.

Urrestillan, Txorietxeko aparkalekua asfaltatu ere egingo da epe motzean.

**Inbertsioa: 500.000€**



## SANJUANDEGIKO SKATE PARKE ZAHARRA KENTZEA

Sanjuandegiko skate parkea zaharkitua zegoelako, erabiltzaileekin adostuta, 2022an, Izarraizko Atea parkean skate parke berria egin du udalak. Hori horrela, Sanjuandegiko skate parke zaharra kenduko du 2023. urtean. Hala, auzoak espazio berri bat irabaziko du.

**Inbertsioa: 420.000€**



### SISTIAGA AUZOKO BASERRI BIDEA KONPONTZEA

Sistiaga errekatik Kukuherriako bidean lurjauzia izan zen. Luiziak malda erabat ezegonkor bihurtu zuen eta konponketa konplexua du eremuak. Hala ere, egin beharreko azterketa eta proiektuak egin ostean, 2023. urtean bide hori konpontzeko obrak egingo dira.

**Inbertsioa: 420.000€**

### ARANAGOIKOAKO IRISGARRITASUNA HOBETZEN

Aranagoikoako bizilagunen eskariz, Aranagoikoa 10-15 etxeatarien inguruko irisgarritasuna hobetzeko obrak egingo dira datorren urtean. Auzo horretako irisgarritasun beharrei irtenbidea emateko helburuz, 2022an, Arana eta Aranagoikoa lotzen dituen igogailua jarri eta Aranagoikoa 17-19 etxeatarien inguruko pasoa irisgarri egin da.

**Inbertsioa: 270.000€**



### HAUR PARKEEN HOBEKUNTZA

Azpeitiko haur parke guztien egoera aztertu du Azpeitiko Udalak. Beharrezko konponketak eta mantenu lanak egingo dira. Horretaz gain, hiru haur parke erabat berrituko dira; Etxe Alaikoa, Loiolabide eta Iñaki Azpiazu artekoa eta Valentina Agirre plazakoa.

**Inbertsioa: 290.000€**

### KARMELO ETXEGARAIIKO SOINKETA GELA ERABERRITZEA

Azpeitiko Udalak eta Karmelo Etxegarai Ikastolak duten elkarlanaren baitan, Ikastetxearen Perdillegiko eraikinaren soinketa-gela eraberritzea adostu dute.



## Irisgarritasuna hobetzeko proiektuak



### LOIOLAKO MEMORIA GUNEA

Loiolan oroigarriak saltzen zituzten, eta gaur egun hutsik dagoen kaxetan jarriko da gunea. Aranzadi Zientzia Elkartea eta Udalaren elkarlanaren baitan gauzatuko da proiektu museografikoa. Bertan, 1936ko uda hartan Loiolan bildu eta Eusko Gudarostea sortu zenekoa eta 36ko Gerra gogoratzeko erreferentzia puntua sortzea da asmoa.

**Inbertsioa: 70.000€**

### TELEFONIKAKO ERAIKINA

Atzegiko aisialdirako Txolarte taldeak eta Udal Euskaltegiaren egoitza berriak Telefonikako eraikin eraberrituan izango dira. Bi eragile horiek beren beharrei erantzungo dien egoitza izan dezaten Telefonikako eraikin zaharra berritzen ari da udala, beraiekin horrela adostu ostean. Obra udaberrirako bukatuta izatea aurreikusten du udalak.

**Inbertsioa: 1.315. 523€**



### MUSIKA ESKOLAREN EGOITZA BERRIA

Juan Antxieta Musika Eskola lekualdatzeko prozesua abian da. Azken urteotan Perdillegin du bere egoitza, baina Soseasuko bigarren solairura lekualdatuko da. Lekualdaketa gauzatzeko Musika Eskolak eta Udalak Soreasuko bigarren solairura aldatzea adostua dute. Lekualdatu aurretik, ordea, eremua egokitu behar da eta horretarako lehiaketa publikoa martxan da. Gaur egun Perdillegin du egoitza musika eskolak, baina eremu horretan etorkizuneko gizarte zerbitzuetako baliabideak hartuko dituen egoitza berri bat egitea adostua du udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Beraz, eremua husteko planifikazioaren baitan, musika eskola hartuko duen eremu berria egokitzeko obrak hasiko dira.

**Inbertsioa: 1.315.523€**

### ETXE TUTELATUAK

Eliz Klean 12 etxebizitza tutelatu egiten ari da udala. Eta udaberrirako obrak bukatuta izatea aurreikusten du. Etxebizitza tutelatuetan mendekotasunik ez edo mendekotasun oso txikia izanik beren egunerokoari aurre egiteko zailtasunen bat duten adinekoei zuzenduriko zerbitzua eskainiko da. Etxebizitza horietan erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzua eskainiko zaie. 4 solairu izango ditu eraikinak; beheko solairuan eremu komunak izango dira eta goikoetan, etxebizitzak.

**Inbertsioa: 1.476.129,63€**



### EGUZKI PLAKAK


Igerilekuan eta udaletxeko eraikinean egin bezala, Azoka Plazako eta Soreasuko teilatuan eguzki-plaka fotovoltaikoak jarriko ditu Udalak. Hala, energia autosorkuntzaren bidean pausoak ematen jarraituko du. Bide beretik, beste erakin publikoetan ere energia berriztagarriak ezartzeko azterketak egiten jarraituko du.

**Inbertsioa: 290.000€**

### LED ARGITERIA

Azpeitiko argiteria publiko guztia LED sistemara pasatzeko azken fasea egitea aurreikusten da. Faseka eta eremuka doa udala argiteria publikoan aldaketa egiten. Gaur egun lau argitatik hiru LED sistemakoak dira.

**Inbertsioa: 750.000€**





**Azpeitia**  
Denontzat

# Urte berri on!

2023 urte zoriontsua  
opa dizuegu

[www.azpeitia.eus](http://www.azpeitia.eus)